

Dioxinak

Joxean Agirre

Klima aldaketaz hitz egiten dugu edo larrialdiaz adierazpenak izenpetzen eta ez gara gauza zabortegei bat kontrolatzeko. Klimaren patua ezin dugu erabat eta osorik kontrolatu, neurri batean eguzkiaren baitan dagoelako, izar horren aktibitateak baldintzatzen duelako gure planetaren tenperatura. Bertako su lamadak eta gas leherketak ikusgarriagoak dira nonbait fase batzuetan besteetan baino. Hori da behintzat gaztetan Geografian erakutsi zidatena.

Harrokeria iruditzen zait eguzki sistemen barruan ludia den txikiarekin klimaren geroa osorik gure esku dagoela pentsatzea, baina airearen, uraren eta luraren kalitatea eta oro har eguratsaren eta ludiaren osasuna gure esku dago eta horren kontzientziak seku-

lako jauzia eman du oso denbora gutxian.

Zenbat aldiz ez ote dugu eztabaidatu Gipuzkoako Bilduko kideok Bizkaikoe-kin zaborren auzia dela-eta. Aldundia galdu izana aurpegiatzen ziguten zaborren gorabehera horrekin. Zabor domestikoen bilketa eta tratamendua kontu hutsala zela frogatu nahi izaten ziguten, baina ez gintuzten erabat kontrentzitzen, «bai, baina etorkizunean kontu hau garrantzitsua izango da», erantzuten genien. Geroztik, gazteen artean batik bat, kontzientzia ekologikoak aurrera egin du eta zaborren tratamendu integralak eskakizun bihurtu direla esango nuke.

Hitz egin dezagun gutxiago klima aldaketaz eta has gaitezen etxetik hasi eta azken industriarainoko zaborrak kon-

trolatzen. Ozonoan eragiten ditugun zuloak arriskugarriak dira, noski, baina arriskugarriak dira halaber gure mendietan antolatu diren “zulo beltzak”, zeinetan edozer gauza botatzen dugun.

Baserri batean jaio ginenok aukera bikainak galdu ditugu aberasteko. Bizkaian izanda areago. Nik jabetzan egokitu zitzaidan lursailean 1.500 pago sartu nituen orain hogeitun urte eta poemak idaztera dedikatzen naiz. Ez nintzen nonbait dirua egiteko jaio. Nire poemak zakarrontzira botatzen ditut, handik Zubietako erraustegira iritsiko dira eta zer pentsatua ematen dit Markel Olanok jarri dituen filtro miresgarriari esker dioxina arin bihurturik, Usurbilen, Lasarten eta Hernanin maila ditudan pertsonengana iritsiko direla jakiteak. •

Zaldibar, krimen bikoitza

Xabier Mikel
Errekondo

Zaldibarkoa krimen bikoitza izan da, diru arpilatze aseezinak eta axolagabekeria politikoak eragindako langile biren iragarritako hilketa eta ingurumen krimena. Azkenean gertatu egin da, Zaldibarko zabortegea goitik behera jauzi da eta azalera irtendako ustelkeriek enpresa bezala Jaurlaritza dute harrapatu.

2011tik ia egunero tonaka zabor toxiko jauzi badira zabortegeiak baimenik ez izan arren, jarduera arriskutsuen kontrolerako betebeharra duen Jaurlaritza-ko Ekonomia eta Industria Saila enpresaren jardute axolagabearen konplize kontziente izan da nahitaez. Zaindariak,

Jaurlaritzak, ez du bere lana egin, ez ditu herritarrak zaindu. Horixe agerian gertatu zen bihamunean Ondare Natural eta Klima Aldaketarako zuzendari Aitor Zuluetak adierazi zuenean zabor arriskutsurik ez zela pilatu Verter Recycling enpresak txostenean horrela adierazia zuelako. Verterrek egin ditu bere jardueraren kontrol txostenak?

Zaldibar aire librean dagoen erraustegia da: eraiki lau horma, margotu berdez eta altxa tximini luzzze bat dioxinak eta furanoak kanporatzeko eta Zubietako erraustegia bera izanen da.

Zaldibarren nola, gezurrekin iraindu egiten gaitu Gipuzkoako Aldundiak 24

orduz eta 365 egunez erretako zaborren ke toxikoak kanporatuko dituen tximiniari “berria” hitza erantsita hurrek osasun arazorik ez dutela izango “El Diario Vasco” egunkariaren pulpitutik etengabe listukatzen digutenean.

Gipuzkoako ahaldun nagusi zaren hori, Markel Olano jauna, ez jarri martxan Zubietako erraustegia, badakizu eta bestela Gipuzkoako baratzak, etxeak eta eskolak dioxina eta furanoz blaituko dituela eta, bai ala bai, eragingo lituzkeen krimenen erantzulea zu zeu izango zarelara.

Osasunak ez du preziorik eta nehorik ez du inorena akabatzeko eskubiderik. •